

[www.biltzen.org](http://www.biltzen.org)

2018ko  
memoria

# #biltzen

Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGIKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



<b>Nor gara</b>	<b>3</b>
<b>Nola egiten dugu lan</b>	<b>4</b>
<b>Zer egiten dugu</b>	<b>5</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>6</b>
Formakuntza	6
Elkarteak indartzea eta parte-hartze soziala	7
Komunitatean aniztasuna eta bizikidetzatza sustatzea	8
Informazioa, dokumentazioa eta jakintza espezializatua	9
Aholkularitza	10
<b>Proiektuak</b>	<b>11</b>
Eraberean	12
Aholku Sarea	13
Aniztasunaren kudeaketa polizialari buruzko prestakuntza	14
Tratu berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko i. euskal kongresua	15
Emakunderen berdintasun foroan elkarlana sendotzea	16

# Nor gara

Titulartasun publikoko zerbitzu bat gara, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Poitiketako Sailari atxikitakoa. Honako helburu hauek lortzeko ekarpena egitea da gure helburua:

- Euskadin bizi diren pertsona guztientzako **integrazioa** eta denek herritarren eskubideez gozatzea, edozein dela ere haien jatorria, hizkuntza eta erlijioa.
- Etengabe aurrera egitea gure gizartea osatzen duten kultura-taldeen artean **kultura-aniztasuna eta bizikidetza modu positiboan eta inklusibitatean oinarrituta kudeatzeko** euskal gizarteak duen gaitasunean.
- Sentsibilitatea sustatzea eta tresnak zein baliabideak sortzea **diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako**, baita desberdina denarekiko beste intolerantzia-eta gorroto - modu batzuen aurka egiteko ere.



# Nola egiten dugu lan

2004an gure zerbitzua sortu zenetik, erkidegoko zerbitzua gara, EAEkoa, eta honako hauek dira gure nortasunaren ezaugarriak:

- **Bigarren mailako zerbitzua:** batez ere eragileekin egiten dugu lan, ez azken hartzaileekin.
- **Subsidiariorotasuna:** lankide ditugun eragileen legitimitateak aintzat hartzen ditugu.
- **Osagarritasuna:** indartu egiten ditugu eragile horien kompetentziak, gaitasunak eta baliabideak eta horretarako, ahaldundu egiten ditugu, ez ordeztu.
- **Elkarlanerako eta sarean lan egiteko ereduak sustatzea:** erantzukizun publikoaren eta ekimen sozialaren arteko elkarriketa eta lankidetzat sustatzen ditugu; baita gizarte zibileko eragileen eta beste batzuen artekoa ere.
- **Berrikuntza:** helburuarekin lotutako arloetan, esperientzia pilotuak, programa eta tresna berriak sustatzen ditugu beste eragile batzuekin elkarlanean.
- **Lana eskalan:** gure eta besteen jakintza eta esperientziak sistematizatzen saiatzen gara, programa egonkor bihurtuz eta kudeaketa-eredu eraginkor batekin.



125

Erakunde sozialak

5.458

Pertsonak hartu dute parte gure programaren batean

150

Administrazio eta erakunde publikok erabili dituzte gure zerbitzuak eta programak

# Zer egiten dugu

Zenbait jarduera-ildo uztartzen ditugu eta horretarako, gure **jakintza tekniko espezializatuta eta** eragileen, zerbitzuen eta hartzaileen **errealitatearekin dugun harremana** eskaintzen dugu:

- EAEn **erreferentziazko politikak eta plangintzak diseinatu, hedatu eta ebaluatzen ditugu**, gai hauei lotuta: aniztasunaren kudeaketa, tratuan berdintasuna eta ez diskriminaziorik ez egitearen ikuspegiak sektorekako politiketan txertatzea.
- Kulturartekotasunaren, aniztasunaren, diskriminaziorik ez egitearen **ikuspegiak** sektorekako politiketan **txertatzea**.
- **Araudiak, arretarako ibilbideak eta praktika profesionalak** euskal gizarteak duen aniztasunera **egokitzea**.
- Erakundeak, eragile profesionalak eta abarrak eta haien **kompetentziak garatzea**.
- **Programak, baliabideak eta esku-hartzeko metodologiak sortzea**; bai geure kabuz, bai beste batzuekin elkarlanean.
- Talde kulturalen bizkarrezur diren **erakundeak indartzea**.
- **Ezagutza espezializatuak sortzea**.



Zerbitzuen  
garapena eta  
kudeaketa

**1.600**  
Ordu

Zerbitzu eta  
programa  
egonkorren

**13.300**  
Ordu

Garapena eta  
lankidetzako  
berrikuntzako  
proiektuetan

**1.500**  
Ordu

Laguntza Enplegu eta  
Gizarte Politiketako Sailari  
aniztasuna kudeatzeko  
politikak hedatzeko  
lanetan

**3.500**  
Ordu

Aniztasun-politikak Eusko  
Jaurlaritzako beste sail  
eta erakunde batzuekin  
zeharkako bihurtzeko  
agenda

**32**  
lan-ildo elkarlanean

**2.200**  
Ordu

# Zerbitzuak

## PRESTAKUNTZA

Erakundeek, elkarteek eta eragileek aniztasuna kudeatzeko dituzten kompetentziak garatzen ditugu eta horretarako, prestakuntza espezializatuaren eskaintza egonkorra dugu migrazioen, ijitoen, kultura arteko ikuspegiaren, tratu-berdintasunaren eta ez diskriminatzearen inguruan.

Honako prestakuntza-mota hauek lantzen ditugu:

- **Gure eskaintza propioa:** jardunaldiak.
- Sektoroko zirkuituetan eta egituretan **txertatuta:** Berritzeguneetako prestakuntza-planak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren prestakuntza-plana, Osakidetzako barneko prestakuntza-planen eskaintza eta abar.
- Tokiko erakundeekin, hirugarren sektoreko erakundeekin eta abarrekin **itundua.**

107

Presakuntza-ekintza

560

Prestakuntza-ordu

2.413

Pertsona parte-hartzaile

22

Erakunde sozialei eman diegu arreta

4.890

Ordu

24

Administrazio eta erakunde publikori eman diegu arreta



## ELKARTEAK INDARTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA

Beste eragile eta egitura batzuekin elkarlanean arituta, kultura-aniztasunaren, bizikidetzaren eta berdintasunaren arloetan lan egiten duten elkarteek ehuna sustatzeko eta indartzeko lan egiten dugu; hau da, gizarte-eraldaketarako eragile aktiboekin aritzen gara.

Hona hemen zerbitzu honetan egiten ditugun jarduerak:

- **Elkarteak indartzeko programa:** migratuen eta ijitoen elkarteek zuzendutakoa.
- **Laguntza eta asistentzia teknikoak** elkarteek proiektuak, esku-hartze sozial, kultural, gizarte eta hezkuntzakoak diseinatzeko.
- **Laguntza teknikoak** koordinazioa, sareko lana eta abar lantzen dituzten espazioei.



Elkarteak indartzea eta parte -  
hartze soziala

1.000

Ordu

14

Elkarteengana  
ailegatua

## KOMUNITATEAN ANIZTASUNA ETA BIZIKIDETZA SUSTATZEA

Pertsonen eta taldeen arteko harremanak modu positiboan kudeatzeko lanetan parte hartzen dugu komunitateko esparruan. Horretarako, herritar guztiak sentibilizatzeko prebentzio-estrategiak eta gatazkak erregulatzeko estrategiak uzartzen ditugu, eragileak haien lekuan bertan aktibatzea eta ahalduntzea lehenetsita:

- Komunitateko erreferentziazko espazioetan askotariko hartzaileei zuzendutako sentibilizaziorako programak eta jarduerak zuzenean **sustatzea** eta **kudeatzea**: ikastetxeak, gazteentzako ekipamenduak, kultura arlokoak, zentro zibikoak eta abar.
- **Laguntza tokiko eragileei** komunitatean bizikidetza-gaiak kudeatzeko..
- **Laguntza** ekipamenduak eta espazioak, esku-hartzeko metodologiak eta abar kudeatzeko **araudiak** egokitzeko prozesuetan.
- **Sustapena** eta laguntza kultura-aniztasunari aitorpena eta ikusgarritasuna emateko jardueretan.

### Eskolako sentibilizazioa

14  
Ikastetxeak

48  
Taldeak

866  
Ikasleak

4  
Artatutako administrazio eta erakunde publikoak

750  
Ordu

### Eskolatik kanpoko sentibilizazioa

10  
jokaerak

3  
Erakunde sozialak

6  
administrazio

750  
Ordu

### Beste jarduerak

4  
Jokaerak

1  
Administrazio

6  
Erakunde sozialak



## INFORMAZIOA, DOKUMENTAZIOA ETA JAKINTZA ESPEZIALIZATUA

Biltzenen erreferentziarako eremuetan jakintza espezializatua sortzeko eta hedatzeko lan egiten dugu eta horrekin uzartzen ditugu azterketarako ekintzak, materialgintza, hedapena, ikerketetarako laguntza eta abar:

- **Txosten** teknikoak eta juridikoak egiten ditugu Biltzenen erreferentziarako eremuetan: aniztasunaren kudeaketa, tratu-berdintasuna eta diskriminazio eza, atzerriko gaiak eta abar.
- Arlo horietan espezializatutako gidak, materialak eta euskarriak prestatu eta hedatzen ditugu.
- Herritarrei zuzendutako **informazio-programak**.
- **Lankidetz**a unibertsitate, ikertzaile eta abarrekin, azterlanak eta ikerketak diseinatzeko, aztertze eta zabaltzeko.
- **Itzulpen-zerbitzua** EAEn ditugun talde kultura minoritarioen hizkuntza nagusietara.



**10**

Kolaborazio  
azterlanetan eta  
ikerketetan

**2**

Erakunde sozialei  
eman diegu arreta.

**12**

Informazio saio/  
156parte-hartzaile

**8**

Administrazio eta  
erakunde publikori  
eman diegu arreta

**17**

Txosten tekniko  
juridiko eta abar.

**1.830**

Ordu

**13**

Euskarri itzuli ditugu, 11  
hizkuntzatara

## AHOLKULARITZA

Guk geuk zuzenean nahiz beste batzuekin elkarlanean, erreferentziak garatzen ditugu eragile politikoei eta teknikoei eta, oro har, herritarrei, gau hauetan laguntzeko: aniztasuna kudeatzea, tratu-berdintasuna eta ez diskriminatzea, gizarte-integraziorako ibilbideen diseinua eta egokitzapena eta abar:

- **Aholkularitza** juridikoa **atzerriko** gaietan.
- **Aholkularitza** juridikoa tratu-**berdintasunari** eta diskriminazio ezari lotuta.
- **Aholkularitza kulturartekotasunaren** ikuspegia txertatzeko.

Hona hemen aplikazio-eremuak: politika publikoak, plangintzak, araudiak egokitzea, zerbitzuak eta programak diseinatzea, esku-hartze sozial, kultural eta hezkuntzakoetarako proiektuak garatzea.

**1.865**

Konstulta/ kasu

**870**

Profesional

**3.800**

Ordu eskaini dizkiogu

**995**

Partikular

**77**

Erakunde sozialei eman diegu arreta

**106**

Administrazio eta erakunde publikori eman diegu arreta



# Proiektu eta parte-hartze estrategikoak

Zerbitzu eta programa egonkorrez gain, haien izaera berritzailea, lantzen dituzten gaiak, lurralde mailako irismena eta eskalako dimentsioa, sortzen duten harremanen kapitala eta abarrak direla eta **bereziki esanguratsuak diren beste zerbitzu eta proiektu batzuk hirugarren batzuekin elkarlanean bultzatzen ditu eta/ edo horietan parte hartzen du Biltzenek.**

Guztiek **izaera estrategiko eta lehentasunezkoa** dute; izan ere, gure ekintza hirugarren eragile batzuekin lotuta antolatzen eta etorkizunera begira proiektatzen laguntzen dute.

2019an garatutako guztien artean, **honako hau izan daiteke esanguratsuenen zerrenda bat:**



## ERABEREAN: Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea

**Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren** ekimena da, eta horren bidez, elkarlanean dihardugu immigrazioaren, ijito herriaren sustapenaren eta LGTBI+ kolektiboaren arloan erreferentziatzeko elkarte ugariarekin, sarean.

Erakundeek antena gisa egiten dute lan. Hala, hiru lurralde historikoetan, eta ahal dela, eremu pribatuan, diskriminazio posiblearen kasuak aipatuz egoitzara hurbiltzen diren pertsona edo kolektiboak detektatzea eta horiei arreta ematea da helburua.

Bestalde, lan-batzorde ugarietan, eraldaketa sozialeko prozesuak bultzatzea da gure ardatza. Horretarako, **sentsibilizazio-materialak sortzen ditugu, eragile sozial ugarietara, oro har, aholkularitza eta prestakuntza-jarduerak eskaintzen** dizkiegu eta, beste alde batetik, modu zuzenagoan lan egiten dugun jatorri, etnia, identitate edo sexu-orientazio arazoak direla eta diskriminazio-tratua jaso duten biktimak posiblei lagunduz eta haiei arreta eskainiz.

<http://www.euskadi.eus/rederaberean>



# eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA  
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO  
Y NO DISCRIMINACIÓN



## AHOLKU SAREA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan, **atzerritarren arloan sustatutako aholkularitza juridikoko sareak** atzerritarren erregularizazioa erraztea du helburu..

Horrez gain, bat-batean sortutako irregulartasuna saihestu nahi du, familian bizitzeko eskubidea gauzatzearen alde lan eginez. Bestek beste, **arlo hauetan egindako lana nabarmentzen da:**

- **Bizileku-baimena egoera ezohikoengatik.**
- **Ikasketengatik egonaldia** egiteko baimena eta hura luzatzea.
- **Adingabe atzerritarrak.**
- **Iraupen luzeko** bizileku-baimena.
- **Komunitateko araubidea.**
- **Berritzeak.**
- **Baimenak aldatzea.**
- **Berrelkartzea.**



>  
**AHOLKU-SAREA**  
AHOLKU-SAREA

## ANIZTASUNAREN KUDEAKETA POLIZIALARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Eusko Jaurlaritzaren sail arteko lankidetzaren ondorioz, Biltzen zerbitzuak, Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin batera, Ertzaintzako **250 agenteri** prestakuntza-programa intentsiboa eman zioten. Prestakuntza-programak hiru maila zituen (hasierakoa, aurreratua eta goi mailakoa), eta bakoitzak bederatzi saio. Immigrazioarekin, ijito-herriarekin eta LGTBI kolektiboarekin lotutako gai interesgarriak landu zituzten horietan

Prestakuntza-programa horrek **alderdi teorikoak eta praktikoak** hartu zituen barne. Era berean, **polizia-zerbitzuen eta gizarteko kolektiboak gehienordezkatzendituztenerakundesozialen arteko topaguneak** ere izan ziren; aipatutako intereseko arloetan lan egiten dute erakunde horiek.

**Pertsona guztien oinarrizko eskubideak modu eraginkorrean egikaritzen direla bermatzea** da prestakuntza honen helburua, **pertsona horien baldintzak edo jatorria edozein izanik ere**. Halaber, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea da helburua, eta horretarako polizia-prozedurak hobetzea.



## TRATU BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIO EZARI BURUZKO I. EUSKAL KONGRESUA

Eraberean sarearen ekimenez, Familia Politika eta Aniztasun arloko Zuzendaritzak Kongresu hau antolatu zuen. Kongresuaren idazkaritza teknikoa Biltzenen bidez egin zen. **Abenduaren 13an eta 14an egin zen Kongresua, Gasteizen.**

**Elkartzeko, hausnartzeko eta diskriminazioaren eta gorroto-delituen arloko esperientziak partekatzeko espazio** bat izan zen kongresua. Agenda politikoan, instituzionalean eta sozialean **Tratu-Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren** printzipioaren presentzia indartzea izan zen helburuetako bat, baita etorkizunari begira arlo honetako ekintzak bideratuko dituzten aztarnak identifikatzea ere.

Programa ofizialaz gain, Kongresuak haren **irismena biderkatu zuen hiru lurralde historikoetan banatutako beste programa paralelo baten bidez.** Hala, diskriminazioaren aurkako borrokaren inguruko jarduerak antolatu zituen, abenduaren 10ean hasita, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean.



## EMAKUNDEREN BERDINTASUN FOROAN ELKARLANA SENDOTZEA

Biltzenek hainbat urte daramatza **Emakundek** urtero sustatzen duen Berdintasun Foroan parte hartzen. Emakume migratzaileak eta emakume ijitoak ere bistaratzea da gure ekarpenaren ildoak, berdintasuna sustatzean haiek ere eragile gisa kontuan hartzeko eta haien gaineko estereotipoak hausteko.

Urtero hainbat **jarduera egiten dira, Biltzenek sustatu eta antolatuak. Beste jarduera batzuk migratzaileen elkarteekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren erabateko sustapenerako kontseiluko emakumezko ijitoen batzordearekin batera diseinatzen eta antolatzen ditugu.**

Aurten  **jardunaldi** bat antolatu genuen  **azaroaren 9an, Gasteizen, Errumaniar Kultur Bizia** elkartearekin batera: “Nola lortu nire familia indartsua eta berdinzalea izatea?”. Hauek parte hartu uzten: **Emakundeko zuzendaria, Errumaniako kontsul nagusia (Bilbon dagoena), Daniela Andreica (Zaragozako Unibertsitatekoa) eta hainbat dantza talde.**



La igualdad se aprende  
**Enseña igualdad**



*Euskadi, bien común*  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## KONTAKTUA

[biltzen@biltzen.org](mailto:biltzen@biltzen.org)

**Profesionalentzako** arreta juridikoa: **944 001 809** – [juridika@biltzen.org](mailto:juridika@biltzen.org)

**Partikularrentzako** arreta juridikoa (dohan): **900 840 890**

### Ordutegia:

9:00etatik a 17:30etara

#### **Biltzen Bizkaia**

Basurto-Kastrexana  
errepidea, 70  
48002 Bilbo  
tel.: **944 001 900**  
[biltzen@biltzen.org](mailto:biltzen@biltzen.org)

#### **Biltzen Gipuzkoa**

Gurutzegi kalea12  
20018 Donostia- San  
Sebastián  
tel.: **688 648 745**  
[biltzen@biltzen.org](mailto:biltzen@biltzen.org)

#### **Biltzen Araba**

Errege Atea, 3. 11.  
dptoa  
01001 Vitoria-Gasteiz  
tel.: **945 203 661**  
[biltzen@biltzen.org](mailto:biltzen@biltzen.org)



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural



[www.biltzen.org](http://www.biltzen.org)

2018ko  
memoria

# #biltzen

Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGIKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES